



Ajangizko Udala

Ajangizko Udaletxean, 2009koren (e)an.

BATZARTUTA:

Alde batetik Koldo **Carbonell Oihartzabal** jauna, Ajangizko Udaleko Alkate-Udalburua, bere karguak ekintza hau burutzeko ahalmenduta.

Bestetik, Alex **Zubia Berriozabal** jauna, jakinarazpenetarako helbidea Gernika-Lumoko (48300) Maloste kaleko 2. zenbakian duen "Lurgozo" Kontsumo Ekologioaren aldeko Urdaibaiko Elkartearen Presidentea.

EKINTZAN PARTE HARTZEN DUTE:

Koldo **Carbonell Oihartzabal** jaunak Ajangizko Udalaren izen eta ordezkari modura, Udaleko Alkate Udalburu den heinean.

Alex **Zubia Berriozabal** jauna "Lurgozo" Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkartearen izen eta ordezkari izan.

Bi parteek bakoitzak aipatzen duen ordezkari onartzen dute eta horren arabera **Aldi baterako dohaineko erabilera lagapen hitzarmena (prekario arrunta)** formalizatzen dute, Udaleko Idazkaria den Saioa **Pineda Aranburu** andrearen aurrean, honek ekintzaren fede emanik.

Zuzenbidearen arabera ekintza hau burutzeko ahalmen nahikoa daukate, eta horren arabera,

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengo: Ajangizko Udala honako finka honen erregistro titularra dela:



Ajangizko Udala

Deskribapena:

Kargak:

Inskripzioa:

Bigarren: "Lurgozo" Kontsumo Ekologikorako Urdaibaiko Elkarteak 2007ko otsailaren 22an sortu zen Urdaibaiko eskualdean pertsonen eta ingurumen ekologikoaren osasunaren aldeko kontsumo arduratsua sustatzeko.

"Lurgozo" Kontsumo Ekologikorako Urdaibaiko Elkarteak bere ekintzen esparrua zabaltzeko nahi du kontsumitzaile eta produktoreen arteko elkargune berri bat sortuz, eta horretarako Ajangizko udalerririk dituen berezitasunak kontutan hartuta, Ajangiz toki egokitzat hartzen du.

Hirugarren: Ajangizko Udalak zerbitzu hau Ajangizko kontsumidore zein produktoreen onerako izango dela ulertzen du. Kontsumitzaileentzako udalerrian berezitasun hauek dituen establezimendu bakarra delako; eta produktoreentzako, hauei bildutako produktuak merkaturatzeko bidea ematen dietelako.

Laugarren: "Lurgozo" Kontsumo Ekologikorako Urdaibaiko Elkarteak Ajangizko biztanleei zuzendutako produktuen salmentarako zerbitzu berri bat eskaintzeko aukera proposatu dio Ajangizko Udalari.

Aipatutako guztia kontutan hartuta, bi parteek honako lagapen dokumentu hau sinatzen dute honako kalusula hauen arabera:

KLAUSULAK



Ajangizko Udala

LEHENENGOA: Legezko ahalmena

Bi parteek hitzarmen hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa onartzen diote elkarri eta hitzarmena fede onez betetzeko konpromesua hartzen dute.

BIGARRENA: Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea, Ajangizko Udalarena den lehenengo adierazpenean deskribatzen den lokalaren aldi baterako eta dohaineko lagapena "Lurgozo" Kontsumo Ekologikorako Urdaibaiko Elkartearen alde arautzea da.

HIRUGARRENA: Lurgozo Kontsumo Ekologikorako Urdaibaiko Elkartearen betebeharrak.

1. "Lurgozo" Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkarteak dohainik lagatako lokalak sortzen dituen **gastu guztiak ordainduko ditu.**
2. Lagapenak ondasunak **hitzarmenean adierazitako helbururako erabiltzera** behartzen du lagatua. Baldintza hau beteko ez balitz lokala zuzenean Ajangizko Udalaren esku geratuko litzateke.
3. Lagapena atzera botako da **Ajangizko Udalak bere erantzunkizunetarako beharrezko dela ulertzen duen momentuan, bidezko erabakia hartu eta ebazpena kontsumo entitateari jakineraziz;** kasu honetan "Lurgozo" Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkarteak ez du inolako indemnizaziorik jasotzeko eskubiderik izango.
4. **Bazkide titularra Ajangizko Udala** bada ere, Elkartean parte hartu nahi duten herritar guztiek parte hartu ahal izango dute. "Lurgozo" Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkarteak deialdi publiko eta zabalak burutuko ditu Asambleak zein sortzen diren

Koldo Arburu

[Signature]



Ajangizko Udala

lanpostuetarako eta horietan herritar guztiek eskubide berdinekin parte hartu ahal izango dute eztabaida eta erabakietan.

5. Lokala gutxienez **astean lau egunetan** zabalduko da arratsalde, bolondresik balego egun gehiagotan zabaltzeko eragozpenik gabe.
6. "Lurgozo" Elkarteak Ajangizko herritarrekin lan harremana zehaztuko du, ahal den neurrian **bildutako produktuak merkaturatuz**.
7. "Lurgozo" Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkarteak Ajangizko herritarrei kontsumo ekologikoari buruzko **informazioa** eskainiko die, hitzaldi, aldizkari eta sortzen den beste informazio bideen bitartez.
8. "Lurgozo" Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkarteak **zerbitzu euskaduna** emateko konpromesua hartzen du; halere, bolondresetako batek euskara ez jakitea ere gerta daiteke.

LAUGARRENA: Ajangizko Udalaren betebeharrak

1. Ajangizko Udalak Mendieta auzoko 66 zenbakian kokatutako **lokala prekarioan lagatzen du** "Lurgozo" Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkartearen alde.
2. Ajangizko Udalak "Lurgozo" Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkartearen funtzionamendu eta Elkartean parte hartzeko aukerei buruzko **informazioa** helaraziko die herritarrei.
3. Ajangizko Udalak, Elkartearen lokalean erosketak egin nahi dituzten herritarrei **udalerriko biztanle direla ziurtatzen duen agiria** eskainiko die.

Dokumentu hau errolda ziurtagiria edo beste antzeko dokumentu bat izan daiteke.



Ajangizko Udala

BOSGARREN: Hirugarrenen alde lagapenak egiteko debekua

“Lurgozo” Kontsumo Ekologikoaren aldeko Urdaibaiko Elkarteak ezin izango du udal lokala hirugarrenei laga, alokatu ez eskualdatu, nahiz eta hirugarren hauek erabilera bera eskaini, ezta prekarioan bada ere.

SEIGARREN: Lagapenaren gehieneko iraupen-epea

Bi parteek aho batez onartzen dute hitzarmen honen xede den aldi baterako dohaineko erabilera lagapenak urte beteko gehieneko iraupena izango duela, eta zuzenean luzatuko dela bi hilabeteko aurretiaz parteetako batek kontrakoa adierazten ez duen bitartean.

Hitzarmena erlazioa bukatzean edo lokalaren erabilera udalera bueltatzean, ordurarteko erabiltzaileak egindako eta eraman ezin daitezkeen hobekuntza guztiak lokalaren jabe den udal administrazioak bereganatuko ditu inolako indemnizaziorik gabe, obra edo hobekuntza jakin baterako hartu daitezkeen aparteko erabaki espresuen kalterik gabe.

Eta horrela ager dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan, parte hartzaileek honako hitzarmen hau sinatzen dute goain aipatutako toki eta datan.